

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

Learning

Ikasi

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

# Grekoa II USE 2018

www.ehu.eus

literature





***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

## A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

(5 puntu)

### **Apolodoro, Epitome VII, 6**

*Odiseok Ziklopearekin topo egiten du.*

Ὀδυσσεὺς δὲ αὐτῷ δίδωσιν ἐκ τοῦ Μάρωνος<sup>1</sup> οἴνου πιεῖν· ὁ δὲ πιὼν πάλιν ἤτησε, καὶ πιὼν τὸ δεύτερον ἐπηρώτα τὸ ὄνομα. τοῦ δὲ εἰπόντος Οὔτις καλεῖται, Οὔτιν ἠπεῖλει ὕστερον ἀναλῶσαι, τοὺς δὲ ἄλλους ἔμπροσθεν.

### **Galderak**

- 1.1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: Ὀδυσσεὺς δὲ αὐτῷ δίδωσιν ἐκ τοῦ Μάρωνος οἴνου πιεῖν. (1 puntu)
- 1.2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἤτησε. Joka ezazu aditz hori indikatiboko aoristoan (boz aktiboan). (0,5 puntu)
- 1.3. Izen honen analisi morfologikoa: ὄνομα. Singularreko deklinabidea. (0,5 puntu)
- 1.4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: ὄνομα. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)
- 1.5. Komedia grekoa: Aristofanes. (1 puntu)
- 1.6. Euripides-en *Medea*: obraren pertsonaiak. (1 puntu)

---

<sup>1</sup> Μάρωνος: “Maron” (Apoloko apaiza) izen propioaren genitiboa.



Itzuli testu hau, eta erantzun galderai:

(5 puntu)

**Lisias, Eratostenes-en heriotzaren defentsan, 14.**

*Eufiletok egindako galderak*

ἐπειδὴ δὲ ἦν πρὸς ἡμέραν, ἤκεν ἐκείνη καὶ τὴν θύραν ἀνέωξεν. ἐρομένου δὲ μου, τί αἱ θύραι νύκτωρ ψοφοῖεν<sup>1</sup>, ἔφασκε τὸν λύχνον ἀποσβεσθῆναι<sup>2</sup> τὸν παρὰ τῷ παιδίῳ... ἐσιώπων ἐγὼ καὶ ταῦτα οὕτως ἔχειν ἡγούμην.

**Galderak**

1.1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ἐπειδὴ δὲ ἦν πρὸς ἡμέραν, ἤκεν ἐκείνη καὶ τὴν θύραν ἀνέωξεν.

(1 puntu)

1.2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἀνέωξεν. Joka ezazu aditz hori indikatiboko aoristoan (boz aktiboan).

(0,5 puntu)

1.3. Izenordain honen analisi morfologikoa: μου. Izenordain horren deklinabidea.

(0,5 puntu)

1.4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: παιδίῳ. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.

(1 puntu)

1.5. Nobela grekoa: *Dafnis eta Kloe*

(1 puntu)

1.6. Aristofanes-en *Lisistrata*: obraren argumentua.

(1 puntu)

<sup>1</sup> ψοφοῖεν: 3. pertsona plurala, optatiboko aoristoa, ψοφέω aditza.

<sup>2</sup> ἀποσβεσθῆναι: aoristoko infinitibo pasiboa, ἀποσβεσνύω aditza.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisan eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2018.ko martxoa